



EAE-KO HAUTESKUNDEAK. Elkarri kritika eginez hasi zen atzo hauteskunde kanpaina. Gauerdian egindako adierazpenek goizean izan zuten erantzuna. Mayor Oreja PPko hautagaia hainbat kritika egin zizkioten atzo.



TXEMA FERNANDEZ / EFE

EB-IUK Mayor Orejari buruz kaleratu duen kartela, PPko hautagaiarenaren ondoan.

BEHATOKIA

■ Pello Urzelai

Mamua eta arerioa

ARERIO BEHARRA. Kanpaina hasierak argi utzi du foko nagusietako bat Jaime Mayor PPko hautagai nagusia izango dela. Kanpainako lehen mezurik eraso-korrenak berari zuzenduak izan dira. Xabier Arzalluzek aurpegiatu zion Mayorri lehendakari bihurtuko balitz ETA «justifikatuago» sentituko litzatekeela. Arnaldo Otegik iragarri zuen «Mayorren porrot politikoaren atzerako kontaketa» hasi dela. Azkenik, EB-IUK kaleko iragarkiari jarri ditu PPko lehendakari-gaia hizpide hartuta, *Ordago a Mayor* leloarekin. Bistan da Mayor bihurtuko dela kanpainako mamua eta ez dirudi asko inporta zaionik. Batetik, protagonismoa eskuratzen duelako (esaera zaharrak dioenez, hobe da norberaz gaizki hitz egitea ez hitz egitea baino), baina, bestetik, kritika horiek lehendakari bihurtzeko asmoari sinesgarritasuna ematen diotelako. Boto eske, Mayor lehendakari izatera iritsiko balitz etorriko lirakekeen kalteak hainbeste astintzeak, nahiga-

be bada ere, sinesgarriago egiten du aukera hori. Eta horrek, dudarik gabe, laungarri suertatzen zaio PPko hautagaiari, *irabazle* gertatzeko itxura lortzen duena horregatik bakarrik boto gehiago bil dezakeelako. Gainera, besteen ahotan izateak bide ematen dio Mayorri erantzuteko, are gehiago eraso Xabier Arzalluzen aldetik badator. EAJko burukideak gauean botatakoari goizean erantzun zion Mayorrek, Arzalluz «beldurrari leiala» eta «iragana» dela esanez.

AZALPENA. EAJ-EA koalizioak badu motiboa Mayor arerio zuzentzat hartzeko eta haren inguruan beldurra astintzeko. Aldez aurretik, EHrekiko akordioa ezinezkotzat jo ondoren bere helburu nagusia gehiengo erlatiboa lortzea da, eta, horretarako, Mayorren mamua astinduz bi eragin bilatzen du EAJ-EA: bere inguru soziala erne jarri eta inoiz ez bezala mobilizatzea eta, aldi berean, EH-

ren ohizko hauteslegotik zati bat erakartzeara (bi gaitzen artean arinena aukeratzu beharreko tenorean jarriz). EB-IUK antzerako eragina bilatzen du, EHren hauteslegotik zati bat eskuratu nahi duelako. Horri PSE-EEren ingurutik zerbait biltzeko nahia erantsi behar zaio. Horregatik, Madrazok behin eta berriro gogoratzen du Redondontzako botoak Mayorrentzako izango direla. EHren kasuan, EAJ-EA eta PPren arteko polarazioa hautsi edo ahuldu nahian, mezu gogorren bidez Mayor hizpide hartzeko hautua egin du. Batez ere, beste aukeretatik bereizteko PPri aurre egiteko modua nabarmentzen ari da Arnaldo Otegi. Mayorren figuraren inguruan hitz egitea baino Mayorri aurre egiteko moduz eta horretarako behar den tinkotasunaz hitz egitea nahiago du EHk, azken egunotako mezuei kasu eginez gero.

ARERIOAREN AURPEGIA. Bitartean, PP eta

PSE-EEko hautagaien artean ez dago liskarrik. Esparru elektoralari banatzea erabaki dutela dirudi. Bestela, ez da oso ongi ulertzen PP egiten ari den ahalegina eskuin eskuindarraren inguruko botoak esnarazteko eta PSE-EEren hautagaiak horretaz ezer ez esatea. Adibidez, UCDren garaiko ministroek inguruta agertu zenean, frankismotik zetozen politikari ugari bildu zituen bere inguruan Mayor Orejak, Redondok beste aldera begiratzen zuen bitartean. Bestalde, kexurik egin gabe, egitasmo zentralista hutsak aurkezten uzten ari zaio PPko hautagaiari. Gaur, gainera, mitina konpartituko dute *Basta Ya* plataformarekin. PP eta PSE-EEko hautagai nagusiek parte hartuko dute ekitaldi berean, *bizkiak* bezala agertzeko erreparorik gabe. Gaurko argazkiak erakutsiko du Mayorren figuraren atzetik epe luzera jokatzeko ari den bestelako fronte bat dagoela. Badaezpada, arerioa eta *mamua* bereiztea komenigarria izango da.